



ORDIZIAKO IRRIKI ELKARTEA ETA HERRIKO TABERNA LIBRE ETA ZABALIK

“El sumario de las herrikos” izenarekin ezagutzen dugun, eta 13 urte luzez irekita egon den prozesu judizialak, pasa den astean utzi du azken kapitulua eta, sententzia horrekin, erakunde eta militante ezkertiar abertzaleei, beren jarduera sozial eta politikoa aurrera eramateko baliabideak mugatu egin dizkie.

Herriz herri, Ordizian barne, sortutako ehunka kultur eragile eta bilgune sozio-politiko desjabetzeko ebazpen eta agindu honek, herritar askoren artean isla eta ordezkapena duen talde politiko oso bat, bere lan eta jarduerarako hankamotz uzten du.

Urte luzez iraun duen gogorkeri armatua behin betiko amaitutzat ematen den honetan, Euskal Herriak bere nortasuna indartzeko eta etorkizuna eraikitzeko, lege barruan sortu diren alderdi eta mugimendu sozial guztiak, euren egitekoak baldintza eta berdintasun egoera normalizatu batean egitea eskatzen du gizarte osoak.

Horrelako epaiek, askotan, zalantzan jartzen dute Estatu baten egituraketa demokratikoa eta Estatuko botereen artean egon behar den banaketa: gobernuaren bultzada politiko baten medioz, epaitegiek gisa honetako ebazpenak bideratzean.

Egoera honen aurrean Ordiziako Udalak, bere babes eskaintzen die Ordiziako Irriki Kultur Elkarteari, Herriko tabernari eta bertan lan egiten duten eragile politiko, sozial eta kultur taldeei, eta bide batez, sententzia honen aurrean, ondorengo erabakiak hartzen ditu Ordiziako osoko bilkurak:

1.- Espainiar Epaia Mahai Gorenak Irriki Kultur Elkartea eta Herriko taberna desjabetzeko hartu duen erabakia irmoki salatzea.

2.- Erabaki honen berri, Espainiar Epaia Mahai Gorenari ematea.

3.- Baita ere, Goierriko komunikabide guztiei, argitaratu dezaten, mozio honen onarpenaren berri ematea.